

Ikasturtea: 2022/23

143238 - Genero ikasketak

Irakaskuntza planaren informazioa

Titulazioa: 14302 - Hizkuntza Modernoetako eta Kudeaketako Gradua

Ikasturtea: 2022/23

Irakasgaiaren kodea eta izena: 143238 - Genero ikasketak

Noiz egitekoa: Lehenengo seihilekoa

Ikasturtea: 3

Mota: Nahitaezkoa

ECTS kredituak: 6.0

Justifikazioa

Zeharkakoa den hurbilpen batetik abiatuz, irakasgai honen helburua da ikasleak marko kritiko batez hornitzea, genero-identitateari heltzeko bidez sozialaren ordena errealean eta sinbolikoan eragiten duen giza baldintzaren osagai integral gisa, bai eta beste identitate sozial eta kulturelekin (hala nola arraza, klase soziala, nazionalitatea edo erlijioa) elkar eraginean dauden osagai gisa.

Helburu orokor honekin batera irakasgaiaren xede honako hauek ere badira:

- Emakumeen eraikuntza subjektu sozial eta kultural legez aztertzea.
- Genero-identitateak nola eraikitzen diren miaztea eta itxuraz neutrala den errealitate baten azpian datzan aurreiritzi eta estereotipoen kultur ehun nagusia identifikatzea.
- Feminismoaren korronterik garrantzitsuenetan, genero-azterbideen marko teorikoan eta etorkizunaren aurrean atzematen diren erronketan trebatzea.
- Justizia soziala bultzatzea egungo gizarteetako genero mailako desberdintasunak identifikatuz, elkar ulertze hobea eta bidezkoagoa izango den gizarte lortzeko asmoarekin

Aurrebaldintzak

C1 maila euskaraz. Gaztelania eta ingeles irakurriaren ulermena ere nahitaezkoa da.

Irakasgaiko kompetentziak

GAITASUN OROKORRA 3: PENTSAMENDU SISTEMIKOA

Elkarren arteko lotura duten osagaiak antolatzeko eta uztartzeko eta haiekin osotasun bat eratzeko modua ematen duen buru portaera da.

Gaitasun orokor hau bigarren menderatze-mailan garatuko da.

Bigarren menderatze maila:

Izaera globalizatzaileko ezaguera erabiliz egin aurre errealitateari.

Adierazleak:

1. Irakasgai edo arlo desberdinetako elementuak uztartzen ditu errealitatearen analisisian.
2. Errealitatea aztertzeko ikuspegi, iturri eta arlo desberdinetara jotzen du.

3. Edukiak praktikara ekartzen ditu, proiektu batean integratuz.
4. Bereizten du zer den datu isolatua eta zer datuetatik ateratako generalizazioak.

GAITASUN OROKORRA 7: ANIZTASUNA ETA KULTURARTEKOTASUNA

Gizarte eta kultura aniztasuna norbanakoaren eta taldearen aberasgarri gisa ulertzea eta onartzea, pertsonen arteko elkarbizitzan sexu (genero), adin, erlijio, egoera sozial, iritzi politiko edo desberdintasun etnikoen zioz bereizkeriarik ez egiteko.

Gaitasun orokor hau bigarren menderatze-mailan garatuko da.

Bigarren menderatze maila:

Kultura edota gizarte batekiko atxikimenduak giza izaeraren egiturazko, nahimenezko eta arrazoizko loturak direla ulertu eta onartzea.

Adierazleak:

1. Kultura eta gizarte aniztasuna giza elkarreaginaren ondorio gisa aztertzen ditu.
2. Pertsona desberdinen ohitura eta gizarte jokabideen zergatia argitzen saiatzen da.
3. Beste kultura eta gizarte egoera batzuetako pertsonetik harremana norbere burua aberasteko modua dela uste du.
4. Gizarte eta kultur errealitateak pertsonak eratzten dituztela arrazoitzen du.

BERARIAZKO GAITASUNAK

BG 5. Profesio espezializazioaren eremuko iturri, datu eta informazioa kokatzeko eta kritikoki interpretatzeko beharrezkoak diren tresna metodologikoak maneiatzea.

Gaitasun honek giza zientzia, hizkuntza eta kudeaketaren alorrean erabili ohi diren tresna, lanabes eta tekniken eremuari heltzen dio.

Adierazlea:

1. Informazioa biltzeko tresnak erabiltzea, hala nola bibliografia katalogoak, artxibo inbentarioak eta erreferentzia elektronikoak.

BG 6. Giza Zientzien oinarria osatzen duten oinarrizko printzipioak ulertu eta bereganatu eta hauen berezko harremana Hizkuntzekin.

Gaitasun honek esparru humanistikoari heltzen dio eta ondoko osagaiotan garatuko da: 1. Giza Zientzietako eta Hizkuntzetako ikerketa-adar desberdinetako kontzeptu, kategoria, teoria eta gairik nabarmenenak identifikatu eta egoki erabili. 2. Kultura Azterbideetako metodologia desberdinak berezi.

Adierazleak:

1. Praktika kulturalak eta sozialak erabiltzen dituzten euskarri desberdinetan egindako sartu-irtenetan eskuratutako informazio aipagarria modu eraginkorrean eta orekatuan konbinatzen du.
2. Iritzi kritikoa erakusten du kultura desberdinak eta beren arteko harremanak bereizterakoan eta lotzerakoan

Edukiak

1. Sarrera: Generoa
2. Historiari begira: Emakumeen idazketa eta emakumeei buruzko idazketa.
3. Hezkuntza eta hiritarren eskubideak.
4. Ez da emakume jaiotzen... Simone de Beauvoir eta bigarren olatua.
5. Egungo eztabaidak: berdintasuna vs. diferentzia. Etnozentrismoa eta aniztasuna
6. Emakumeei buruzko azterbideak, genero azterbideak, globalizazioa eta erronka berriak: poskolonialitateak eta posmodernitateak

Irakasteko eta ikasteko estrategia, ebaluazio sistema eta dokumentazioa

DOCENTE/S: [Koldobika Josu Bijuesca Basterrechea](#)

GRUPO: 30 - Euskera

Ikasketa-irakaskuntza estrategiak

Bi gaitasun orokorrak eta berariazko gaitasuna ikas-prozesu osoan zehar landuko dira.

Gaitasunak lantzeko ondoko metodoak eta estrategiak erabiliko dira:

Unitate didaktikoetako edukiez jabetzeko astero lau ordu erabiliko dira ikasgelan. Lau ordu horietako erdiak irakaslearen azalpenek beteko dituzte. Beste erdia ikasleen lan praktikoek beteko dute. Talde-mailan egindako eta aurkeztutako lan praktikoak izango dira, baina, ikasle bakoitzak ekarri beharko du aurrez prestatuta eta gero gainerako taldekideekin eztabaidatu, emaitzak aurkeztu aurretik. Lan praktiko hauek zeregin desberdinak eskatuko dituzte (kontzeptuak testu jakinetan aplikatu, ikuspegi batzuen balorazioa egin, gai berezi batzuei buruzko lanak, testu literarioen azterketa...).

Oro har honako teknika hauek erabiliko dira irakasgai honetan: Irakaslearen azalpenak, Eztabaidak ikasgelan, Testu-azterketak, Aurkezpenak, Tutoretzak, Azken froga

Ikasgelatik kanpo ikasleak sartu beharreko orduak lan praktiko hauek eta azken froga prestatzeko izango dira.

Ikasgaiari dagozkion 150 orduak honela banatuko dira:

Eskolan egindako lana: 56 ordu, honako hauetarako:

- Irakaslearen azalpenak
- Zeregin praktikoak
- Lanen aurkezpenak

Eskolaz kanpoko lana: 94 ordu, honako hauetarako:

- Informazioa bilatzea
- Dokumentazioa irakurtzea
- Lanak egituratu eta idaztea
- Ariketak egitea
- Azken froga prestatzea

Ebaluazio sistema

Ikasleak garatutako gaitasunak neurtzeko ondoko jardunak hartuko dira kontuan:

- Eskolan aurkeztutako ariketak
- Talde-lanak
- Azken froga

Azken frogak %40aren balioa izango du, gainerako guztiak %60arena.

Deialdi berezirako eskakizunak berberak dira.

Ebaluazioaren eta kalifikazioaren ehunekoen banaketa honela egingo da:

- Gaitasun orokorrak: %25
- Berariazko gaitasuna: %75

Dokumentazioa

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Euskaraz edota euskal kulturari buruz:

Abril, Natividad (zuzend.), 2004, *Generoa, sexua, hedabideak. Errealitateak, estrategiak, utopiak*, Gasteiz, Emakunde.

Aizpuru, Alaitz eta Altonaga, Bakarne (koord.), 2014, *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea.

Bullen, Margaret, 2003, *Basque Gender Studies*, Reno, University of Nevada.

Bullen, Margaret eta Egido, José Antonio, 2004, *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Cardeñoso, Olga, 2011, *Emakumea gizartearen ispiluan, itzala ala sormena?*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.

Castillo, Isa eta Retolaza, Iratxe, 2013, *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Donostia, edo!.

Epelde, Edurne, Aranguren, Miren eta Retolaza, Iratxe, 2015, *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*, Bilbao, Emagin Elkarte.

Esteban, Mari Luz eta Amurrio, Mila (ed.), 2010, *Feminist Challenges in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque Country*, Reno, University of Nevada eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Lasarte, Gema, 2012, *Feminist agenda. Euskal narratiba garaikidean*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Lasarte, Gema eta Alvarez, Amaia (ed.), 2012, *Gorputza eta generoa. Euskal kulturaren eta literaturaren*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Lasarte, Gema eta Alvarez, Amaia (koord.), 2014, *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak*, Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea.

Olaziregi, Mari Jose (1999), "Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura", *Oihenart*17, 1-75.

Reizabal, Luixa, 2015, *Genero-berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*, Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea.

Valle, Teresa del, 2001, *Emakumeak Euskal Herrian (erresistentziak eta hausturak)*, Donostia, Gaiak.

Woolf, Virginia, 2013, *Gela bat norberarena*, Bilbao, consonni.

Woolf, Virginia, 2014, *Dalloway andrea. Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea*. Donostia, edo!.

Orokorra:

Beauvoir, Simone de, 2005, *El segundo sexo*, Madril, Cátedra.

Bourdieu, Pierre, 2000, *La dominación masculina*, Bartzelona, Anagrama.

Esteban, Mari Luz, 2011, *Crítica del pensamiento amoroso*, Bartzelona, Edicions Bellaterra.

Lerner, Gerda, 1990, *La creación del patriarcado*, Bartzelona, Crítica.

Mill, John Stuart eta Mill, Harriet Taylor, 2001, *Ensayos sobre la igualdad sexual*, Madril, Cátedra.

Millet, Kate, 1995, *Política sexual*, Cátedra, Madril.

Valcárcel, Amelia, 2008, *Feminismo en el mundo global*, Madril, Cátedra.

Wollstonecraft, Mary, 2005, *Vindicación de los derechos de la mujer*, Istmo, Tres cantos.